

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



Urte osoan biltzen da jendea Arenako hondartzara, eta udako hilabeteetan jendez gainezka egoten da. Surflariak ere ibiltzen dira handik olatu bila. LUIS JAUREGILATZO / ARGAZKI PRESS

Tximiniien artean, **harea**

Muskiz eta Zierbena artean dago Arenako hondartza, Bizkaiko kostaldeko lehenengoa, eta Petronorrek findegiairen tximinien ondoan dagoelako ezaguna.

MIKEL CARRAMIÑANA
Muskiz/Zierbena

Bizkaian sortutako lantegi gehienak, industrializazio garaitik, hiri handien aldamenean ezarri zituzten, Ibaizabaleko Itsasadarren inguruan batez ere. Badira, alabaina, salbuespenak, horietako bat, Muskizen eraiki zuten Petronorrek findegia. Somorrostroko haranean sortutako industriagunea, urteak pasatu ahala, paisaiaren parte bihurtu da, Bizkaian sartzeko edo Kantabriarako (Espainia) bidean A-8 autobidetik igaro diren milaka gidariek egunero ikusten dutena. Handik gertu, Barbadun ibaia itsasadar bilakatzen da, eta Kantauri itsasoarekin egiten du

topo, Arenako hondartzaren ondoan, hain zuzen ere.

Muskiz eta Zierbena. Bizkaiko udalerrri biren artean banatuta dago hondartzak duen kilometro eskasa, eta bi herrietakoek haiena bakarrik dela erantzungo dute galdetuz gero. Kokapen geografikoa-gatik, Muskizetik itsasora luzatzen diren paduren jarraipena dirudi, baina, distantziak aintzat hartuz gero, Zierbenako Arena auzoaren ondoan dago hondartza. Udako hilabeteetan hara hurbiltzen diren gehienek, ordea, tren eta autobus ibilbidearen izenarekin lotzen dute Arena, eta, horregatik, Muskizen dagoela uste dute.

Tximiniak eta erregaiekin edukiontzia handiak paisaiarekin nahasten badira ere, eguraldi beroarekin batera jendez gainezka egoten da Arena, besteak beste, hondartza batek izan ditzakeen zerbitzu gehienak eskaintzen dituelako: salbamendu taldeak, komunak, dutsak eta jatetxe ugari. Horrez gain, hare finak eta inguruko mendiek, atsedenerako lekurik egokiena bilakatzen dute.

Hondartzari begira bazkaltzeko aukera ugari dago Arenan, harea-

tzaren atarian aspaldi sortu zuten kale moduko batean jatetxe ugari dagoelako. Horietako batzuk aste-buruko bisitariei begira ireki zituzten ateak, baina, gainerakoetan, egunero dago itsasoaren ondoan menu on bat dastatzeko parada.

Kirolari ugariaren helmuga izaten da Arenako hondartza, surflariak, batetik, eta txirrindulariarena, bestetik. Itsasoko olatuen bila joaten dira lehenengoak, eta, bigarrenek, Bizkaiko Ezkerraldeko he-

rrietatik hondartzaraino luzatzen den bidegorria jarraituz hurbiltzen dira. Portugaletetik 11 kilometroko ibilbidea egin dezakete bizikletazaleek, errepide eta autoen arriskuak erabat ahaztuta. Bidean, gainera, ikusteko moduko to-

Portugaletetik Arenako hondartzara 11 kilometroko bidea egiten duen bidegorri bat dago

kiak bisita daitezke, Quintana dorretxea izandakoaren aztarnak, Erdi Aroko harresiak eta hainbat kobazulo. Bidegorriaren azken lau kilometroak Zierbenan bertan dira eta hondartzaraino luzatzen dira. Horregatik, erraza da bizikletarekin bertaraturako jendea egunero topatzea Arenan.

Udan bainua hartzeko asmoz biltzen diren gehienak, alabaina, Muskizetik egiten dute Arenarako bidea. Izan ere, Bilbo eta inguruko



Bizkaiko Ezkerraldeko abiatzen den bidegorritik Arenako hondartzara heltzen dira bizikleta zaleak. LUIS JAUREGILATZO / ARGAZKI PRESS